# NAHITAEZ BISITATU BEHAR DUZU...
# NO DEJES DE VISITAR...





## Aiako Harria Parke Naturala
## Parque Natural de Aiako Harria

1

Aiako Harria Parke Naturala edertasun bereziko gunea da. Gipuzkoako ekialdeko muturrean kokatua, Aiako Harria mendiguneak Pirinioetako mendikatearen muturretako bat izatearen berezitasuna du, hiru tontor nagusiak Irumugarrieta (806 m), Txurrumurru (821 m) eta Erroilbide (843 m) direlarik.

*Es un espacio de singular belleza. Situado en el extremo oriental de Gipuzkoa, el macizo de Aiako Harria tiene la peculiaridad de ser uno de los extremos de la cordillera pirenaica, con sus tres cimas principales: Irumugarrieta (806 m), Txurrumurru (821 m) y Erroilbide (843 m).*



## Arditurri Meatze Gunea
## Coto Minero de Arditurri

2

Ba al zenekien Arditurriko meatzeak, duela 2.000 urtetik ia etenik gabe ustiatu ziren meatze-galeria bakanetakoak direla? Gaur egun meatze-barrutiaren ingurua berreskuratu da, 1984an Real Compañía Asturiana de Minas enpresak ustiapena utzi ondoren.

*¿Sabías que las minas de Arditurri pertenecen a las pocas galerías mineras que han sido explotadas casi sin interrupción desde hace 2.000 años? En la actualidad se ha recuperado el entorno del coto minero tras el abandono de la explotación por parte de la Real Compañía Asturiana de Minas en 1984.*



## Luberri Historia Geologikoko Museoa
## Museo de Historia Geológica Luberri

3

Oiartzungo ikasgune geologikoaren Luberri museoak 1.000 milioi urteko denbora-tartea hartzen duen bidaia zoragarri bat proposatzen digu gure historia geologikoaren misterioak ulertzeko. Askotariko arrokak, fosilak, mineralak eta material geologikoak aurkituko dituzu bertan.

*El museo de historia geológica de Oiartzun, Luberri, nos propone un viaje maravilloso a lo largo de 1.000 millones de años para comprender los entresijos de nuestra historia geológica. Encontrarás rocas, fósiles, minerales y materiales geológicos muy variados.*



## Soinuenea - Herri Musikaren Txokoa
## Soinuenea - Centro de la Música Popular

4

Ergoien auzoan kokaturik, Soinuenea herri musikaren inguruko museo eta dokumentazio zentroa dugu.

Erakusketa egituratzeko, musika-tresna desberdinen 400 ale baino gehiagoko bilduma bat erabili da eta biltegian 1200 baino gehiago daude sailkatuak.

*Situado en el barrio de Ergoien, Soinuenea es un museo y centro de documentación sobre música popular.*

*En la exposición se ha utilizado una colección de más de 400 ejemplares de diferentes instrumentos musicales y en el almacén están clasificados más de 1200.*



## Arizmendi enea Etxe Museoa
## Casa Museo Arizmendi enea

5

Oiartzungo Elizalde auzoaren erdigunean kokaturik, Urdinola-Arizmendi enea etxea XX. mende hasierako euskal burgesiaren oporretako etxebizitzaren adibide argia da. XVIII. mendeko eraikina izan arren, bere egitura eta estetika eraberrituak izan ziren familia berriaren (Arizmenditarren) gustu eta beharretara egokitzeko. Bere tipologia berezia eta kontserbazio-egoera bikaina direla eta, Interes Bereziko Ondare izendatu zuten 2020an.

*Situada en pleno centro del barrio Elizalde del municipio de Oiartzun, la casa Urdinola-Arizmendi enea es un claro ejemplo de vivienda vacacional de la burguesía vasca de principios del siglo XX. A pesar de ser un edificio del siglo XVIII, su estructura y estética fueron reformadas para adaptarse a los gustos y necesidades de la nueva familia (los Arizmendi). Debido a su peculiar tipología y al excelente estado de conservación, en el año 2020 fue declarado Patrimonio de Interés Especial.*



## Fanderiako Errota - Ibaiaren etxea
## Molino de Fanderia - Casa del río

6

Industriak Errenterian izan duen indarra eta bilakaera aditzera ematen du eraikin honek. Izan ere, dagoeneko XV. mendean bertan kokatzen zen burdinolak uraren indarra erabiltzen zuen energia eragile gisa

Bertan ehotzearen mekanismoa eta errotarriak lanean ikusiko dituzu, errota eta gure kultur eta ibai-ondareari buruzko bi ikusentzunezko, hainbat informazio-panelekin batera.

*El molino de Fanderia muestra la fuerza y evolución de la industria en Errenteria. De hecho, ya en el siglo XV la ferrería se ubicaba allí, utilizando la fuerza del agua como motor de energía.*

*Verás trabajando el mecanismo de molienda y las muelas, el molino y dos audiovisuales sobre nuestro patrimonio cultural y fluvial, junto a varios paneles informativos.*



## Jantziaren Zentroa
## Jantziaren Zentroa

7

Errenteriako hirigune historikoan dago, XVII. mendeko eraikin zaharberritu batean. Jantziaren Zentroak mendeetan zehar janzkerak izan duen bilakaera eta modaren historia ezagutzeko aukera ematen digu. Euskal Herriko jantzi originalen bilduma handiena da, garai ezberdinetako jantziak biltzen dituelarik: XVIII. mendetik 1950era arte.

*Ubicado en pleno casco histórico de Errenteria, en un edificio del siglo XVII restaurado, Jantziaren Zentroa, el centro del traje, ofrece conocer la evolución de la indumentaria a través de los siglos y descubrir la historia de la moda. Se trata de la mayor colección de indumentaria de trajes originales vascos de Euskal Herria. Prendas desde el siglo XVIII hasta 1950.*



## Albaola - Itsas Kultur Faktoria
## Albaola - La Factoría Marítima Vasca

8

Pasaiako badiaren bokalean kokatuta, ALBAOLA ITSAS KULTUR FAKTORIA itsas ondarea berreskuratzeko eta zabaltzeko ontziola, eskola eta museoa da.

Naturgune pribilegiatu honetan, erriberako arotzek balio etnografiko eta historikoa duten egurrezko itsasontzi tradizionalak eraiki eta zaharberritzen dituzte jendearen aurrean.

*A la entrada de la bahía de Pasaia se localiza ALBAOLA, LA FACTORÍA MARÍTIMA VASCA, un museo ubicado en un astillero renovado junto a la antigua draga Jaizkibel.*

*En este mágico y recóndito lugar los carpinteros de ribera construyen y restauran embarcaciones tradicionales de elevado valor etnográfico e histórico.*



## MATER - Ontzi-Museo Ekoaktiboa
## MATER - Barco-Museo Ecoactivo

9

MATER egurrez eraikitako azken euskal atunontzi handia da, arrantzan ehunka bidaia egin ondoren, gaur egun Ontzi Museo Ekoaktiboan bihurtua. Gizartea gure ingurunea zaintzeko eta babesteko elkartu eta parte hartzeko gune ezin hobea.

*MATER Barco Museo Ecoactivo es un atunero clásico del Cantábrico, MATER es la última gran bonitera vasca construida en madera que tras su periplo pesquero ha sido trasformada en un singular Barco Museo Ecoactivo, para acercar e implicar a la sociedad en el cuidado y protección de nuestro medio ambiente.*



## San Marko Gotorlekua
## Fuerte de San Marcos

10

San Marko Gotorlekua pribilegiozko tokian kokatuta dago, Donostiatik 10 kilometro baino gutxiagora, naturan peto-peto murgildua. Zalantzarik gabe, Oarsoaldeko begiratoki nagusia da. Bizarain mendian kokatutako eraikuntza militar bat da, 260 metroko altueran, XIX. mendean eraiki zen Errenteria defendatzeko. Gaur egun ez du erabilpen militarrik; armadak 1970 urtea arte okupatu zuen, eta egun Lau Haizeta parkean integratuta dago, ekipamendu ludiko eta kultural bezala.

*El Fuerte de San Marcos, mirador de la comarca está enclavado en un lugar estratégico a menos de 10 km de Donostia-San Sebastián. Esta construcción militar del siglo XIX, ubicada en la cima del monte Bizarain a 260 m de altitud, fue erigida para la defensa de la zona. Aunque ya no tiene uso militar desde 1970, el Fuerte de San Marcos forma parte del Parque Natural de Lau Haizeta, integrándose en un espacio lúdico-cultural.*



## BIZIKLETEN ALOKAIRUA
## ALQUILER DE BICICLETAS

### BIZI-BADIA
**www.bizibadia.pasaia.eus**

Bizikleta alokairua Pasaiako badian.

*Servicio de préstamo de bicicletas en la bahía de Pasaia.*

Pasaiako Udala (Gipuzkoa) — T. +34 943 004 330

### OARSO MTB
**www.oarsomtb.com**

Bizikletak alokatzeko zerbitzua Oarsoaldea eskualdean.

*Servicio de alquiler de bicicletas situado en la comarca Oarsoaldea.*

Ugaldetxo. Iurrita bidea, 10W (Gipuzkoa) — T. +34 644 315 266

### MUITTU BIZI LEZO
**kirolak@lezo.eus**

Bizikleta mailegu zerbitzua Lezon.

*Servicio de préstamo de bicicletas en Lezo.*

Lezo. Bekoerrota kiroldegia. Euskal Herria plaza, 2 (Gipuzkoa)
T. +34 943 510 311 / +34 943 513 476

## DONOSTIARAKO LOTURA
## ENLACE A DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN

**LOTURA** ENLACE:
Donostia/San Sebastián > Pasaia — 6km

Donostiaren erdi-erditik, bizikleta-bideetako bati jarraikiz, Arditurriko Bide Berdearen hasierarekin bat egin dezakegu, Pasaian.

Bideak 6 kilometro inguru ditu, eta bidaia segurua eta ia maldarik gabea eskaintzeaz gain, hiriaren ingurune urbanoena erakusten digu.

*Desde el centro de Donostia se puede llegar al comienzo de la vía verde en Pasaia, de forma segura, utilizando un carril bici en un agradable recorrido de apenas 6 km sin desnivel.*






*Meazuloetan barrena · Experiencia minera*

**INFORMAZIO ETA ERRESERBAK**
INFORMACIÓN Y RESERVAS

+34 943 494 521 | +34 943 495 069
turismoa@oarsoaldea.eus
arditurri@gipuzkoamendizmendi.net

**www.arditurribideberdea.eus**




**APP**
**ARDITURRIKO BIDE BERDEA**
VÍA VERDE DE ARDITURRI

DISPONIBLE EN Google Play

## App-a deskargatu
## Descarga la app

**GIDA BIRTUALA** | ***GUÍA VIRTUAL***
APP honek bide berdea modu desberdin eta interaktiboan bisitatzeko aukera emango dizu.

*Esta app te permitirá visitar la Vía Verde de forma diferente e interactiva.*

**FAMILIA ESPERIENTZIA** | ***EXPERIENCIA FAMILIAR***
Arditurri modu original eta dibertigarrian ezagutu ezazu familia eta gazteentzat sortutako esperientzia honetan.

*Conoce Arditurri de forma original y divertida en esta experiencia creada para familias y jóvenes.*

## INFORMAZIOA ZABALTZEKO
## PARA AMPLIAR INFORMACIÓN

Turismo-zerbitzuak, informazio-bulegoak, lotura interesgarriak, deskargak, berriak...

*Servicios turísticos, oficinas de información, enlaces de interés, descargas, novedades...*

turismoa.euskadi.eus/eu
turismo.euskadi.eus/es
www.oarsoaldeaturismoa.eus
www.arditurribideberdea.eus